

Bestelako Xedapenak

URAREN EUSKAL AGENTZIA

4124

HUTSEN ZUZENKETA, ondoko ebatzenarenaren: Ebazpena, 2009ko maiatzaren 4koan, Uraren Euskal Agentziako zuzendariarena; beraren bidez arautzen dira edateko ura banatzeko sareak hobetzeko diru-laguntzak.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuak 18.2.b) artikuluan xedatzen duenez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Zuzenketa egiteko eskaria testua argitaratzeko agindua eman duen organoak egingo du.

Horrelako akatsak aurkitu dira aipatutako ebazpenean (2009ko maiatzaren 4ko ebazpena, Uraren Euskal Agentziako zuzendariarena, edateko ura banatzeko sareak hobetzeko diru-laguntzak arautzeko dena). Ebazpen hori 2009ko uztailaren 2an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 125. zenbakian. Hori dela eta, dagokion zuzenketa egiten da segidan:

15. artikuluaren 1. paragrafoan, 3823 (7) orrialdean, honako hau dio:

«Diru-laguntza jaso duten jarduerak diru-laguntza eman den urteko ekitaldia bukatu aurretik hasi beharko dira, eta aurkeztutako egikaritze-programan aurreikusitakoaren arabera egingo dira. Edonola ere, ekintzak 2009ko abenduaren 31 baino lehen gauzatu beharko dira.»

Hau esan behar du:

«Diru-laguntza jaso duten jarduerak diru-laguntza eman den urteko ekitaldia bukatu aurretik hasi beharko dira, eta aurkeztutako egikaritze-programan aurreikusitakoaren arabera egingo dira. Edonola ere, ekintzak 2011ko abenduaren 31 baino lehen gauzatu beharko dira.»

Otras Disposiciones

AGENCIA VASCA DEL AGUA

4124

CORRECCIÓN DE ERRORES de la Resolución de 4 de mayo de 2009, del Director General de la Agencia Vasca del Agua, por la que se regula el otorgamiento de subvenciones para la mejora de las redes de abastecimiento de agua potable.

El artículo 18.2.b) del Decreto 217/2008, de 23 de diciembre, del Boletín Oficial del País Vasco, establece que los meros errores u omisiones en el texto remitido para su publicación que se infieran claramente del contexto y no constituyan modificación o alteración del sentido de los documentos, pero cuya rectificación se juzgue conveniente para evitar posibles confusiones, se corregirán por la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento, a instancia del órgano que haya ordenado la publicación del texto.

Advertido error de dicha índole en el texto de la Resolución de 4 de mayo de 2009, del Director General de la Agencia Vasca del Agua, por la que se regula el otorgamiento de subvenciones para la mejora de las redes de abastecimiento de agua potable, publicada en el Boletín Oficial del País Vasco n.º 125, de 2 de julio de 2009, se procede a su corrección:

En el párrafo 1 del artículo 15, en la página 3823 (7), donde dice:

«Las actuaciones subvencionadas deberán iniciarse antes de finalizar el ejercicio correspondiente al año en que se otorga la subvención y se desarrollarán conforme a lo previsto en el programa de ejecución presentado. En cualquier caso, las actuaciones deberán finalizarse para antes del 31 de diciembre de 2009.»

Debe decir:

«Las actuaciones subvencionadas deberán iniciarse antes de finalizar el ejercicio correspondiente al año en que se otorga la subvención y se desarrollarán conforme a lo previsto en el programa de ejecución presentado. En cualquier caso, las actuaciones deberán finalizarse para antes del 31 de diciembre de 2011.»